

MEMORIA

AURKIBIDEA

- 1.- AURREKARIAK ETA PROIEKTUAREN HELBURUA**
- 2.- EGUNGO EGOERAREN DESKRIBAPENA**
- 3.- OBREN DESKRIBAPENA**
- 4.- AZPIEGITURAK**
- 5.- EGITURAK**
- 6.- EXEKUZIO EPEA ETA BERMEA**
- 7.- AURREKONTUA**
- 8.- KONTRATISTAREN SAILKAPENA**
- 9.- IDAZLARI TALDEA**
- 10.- PROIEKTU HAU OSATZEN DUTEN AGIRIAK**

1.- AURREKARIAK ETA PROIEKTUAREN HELBURUA

Zizurkilgo udalak belar naturaleko futbol zelaiaren egungo egoeraren baldintza orokorrak hobetzeko asmoa du eta belar artifizialarekin ordezkatu nahi du Tolosaldeako eremuko erabiltzaile ugariei beste aukera bat eskaintzearen.

Horrenbestez, 2014ko ekainean udalak girderingenieros enpresari ZIZURKILGO FUTBOL ZELAIAREN BIRMOLDAKETA PROIEKTUA idaztea eskatu zion.

2.- EGUNGO EGOERAREN DESKRIBAPENA

Gaur egun Zizurkilgo futbol zelaia belar naturalekoa da eta kalte nabarmenak ditu.



Kirol ekipamenduko elementuak, aulkiak, ateak, markagailua, etab.... egoera kaskarrean daude, eta gainera belarra ez da uniforme.



Futbol zelaiaren iparraldera Asteasu erreka dago, futbol zelaiarekiko paralelo doana zelaiaren ekialdeko

mugatik 2 m-ra gutxi gorabehera.

Futbol zelaiaren mendealdera baratze batzuk daude. Hegoaldean muga egiten du 3 m zabal den oinezkoen pasealekuarekin (Ernio bidea), egungo zelaitik bananduta dagoena ezpona baten bitartez, 2 m-ko maila aldaketa dagoelako, eta zuhaixka batzuk eta 11 zuhaitzen bidez.



Ekialdean bi eraikin txiki daude, futbol zelaiaren beraren barrendegiak direnak (aldagelak, etab...) hormigoizko zoladura duen tokia eta zelaira iristeko sarbidearekin batera.

Futbol zelaiaren belarraren inguru guztian hormigoizko baranda dago.

8 metroko altuerako sareak daude futbol zelaiaren inguruko hiru aldeetan horma txiki baten gainean ezarrita, bai eta elektrosoldatutako sarea oinezkoen bidetik banatzeko.

3.- OBREN DESKRIBAPENA

Belar artifizialeko futbol zelai berria eraikitzea aurreikusten da egungo dagoen lursail berean, futbol zelaiak ondo funtziona dezan beharrezkoak diren hobekuntzak eta guzti.

Futbol zelai berria eraikitzeko jarraituko diren irizpide nagusia egungoaren antzeko dimentsioak dituen belar artifizialeko futbol zelaia eraikitzea izango da, betiere bertan dauden sare altuak eta zehaztutako mugak gordetzen direlarik.

Hego-ekialdean zelaia oinezkoentzako bidetik banantzen duen horma ere mantenduko da, baita bere gainean dagoen elektrosoldeatutako maila ere.

Belar artifizialaren alboetan alboko arekak eraikiko dira, 10 metroko tartearekin estola zuloak dituztenak zelaiko ura biltzearen. Hegoaldean oinezkoak igarotzeko 60 cm inguruko tartea utziko da, arekarekin batera.

Goratutako aspertsoreak dituen ureztatzeko sistema ere ezarriko da zirkuitu itxiarekin futbol zelaiaren inguruan. Ur hartunea sare nagusira eta lursailaren hegoaldean, aldagelen eraikinaren ondoan, kokatutako iturburuan egingo da, lurraren azpian sartutako 20 m³ edukierako ur biltegian, futbol zelaiaren eta aldagelen eraikinaren artean kokatuta. Goratutako sei aspertsore ezarriko dira futbol zelaiaren lau izkinetan eta beste bi alde luzearen erdian.

Ur biltegia eraikinaren koadro nagusiarekin lotzen duen linea elektrikoa dago.

Futbol zelaiaren luzetarako alboetan zentratutako argiteriari eusteko lau zutabe ezarriko dira.

Aulki berriak ere ezarriko dira, 5 m luze direnak eta bandalikoaren aurka prestatuta daudenak zelaiaren iparraldeko aldean, futbol 11ko bi ate berri, eta beste ate etzangarri futbol 7 jokatzeko, eta kórnerreko bandera sorta berria ere.

RECOMMENDED DOS ESTRELLAS kalifikazioa lortzeko helburuarekin, zelaia material aipatutako diseinatu da. Hori dela eta, zelaiaren egikaritzearen unitate guztiek akreditazio hori lortu ahal izateko pasa beharreko probak gainditu behar dituzte. Hau dela eta, futbol zelaiaren material guztiak aztertuko dira eta amaierako ziurtagiria eskatuko da, entseguak eta probak unitate bakoitzaren prezioan sartuta daudelarik. Prezio hauek, geheinez, egikaritze materialaren aurrekontu orokorraren %2a hartu ditzakete eta entsegu hauek baloratzeko Kalitate Kontrolaren eranskinean adierazten diren prezioak hartu behar dira, "FIFA 2 estrellas" akreditazioa eskuratzea eraikuntza-enpresari dagokiolarik.

4.- AZPIEGITURAK

Proiektu honetan azpiegitura garrantzitsuenak drainatzea, argiteria eta ureztaketa sistemak dira.

Drainatzea prestatzeko alboko bi areka ezarriko dira urak estolda zuloetan biltzeko euri uren sare nagusiarekin lotzeko.

Argiteria hobetzeko zelaiaren luzetarako alboetan zentratutako argiteria zutabeak ezarriko dira. Nahiz eta entrenamendu zein lehiaketarako argiteriarentzako instalakuntza ezarriko den, entrenamendurako argiteria bakarrik ezarriko da etorkizunean lehiaketarako ezartzeko aurreikuspenarekin.

Zelaia ureztatzeko iturburu batek eta horniketa sare orokorrak hornitzen duen 20 m³ edukierako ur biltegia ezarriko da; bai eta itxitako hoditeria ere futbol zelaiaren inguruan goratutako sei aspertsore izango dituen.

Instalazioak izeneko 04. eranskinean dagozkion datuak bildu dira.

5.- EXEKUZIO EPEA ETEA BERMEA

Lanak egiteko gutxi gorabeherako epe gisa HAMAR (10) ASTEKO epea zehaztu da. Epe hori dagokion eranskinean biltzen den laneko planetan oinarrituta erabaki da. Alabaina, behin betiko epea obra eskuratzeko oinarri gisa hartuko den Administrazio Klausula Partikularren Orrietan zehaztuko da.

Bermeari dagokionez URTEBETEKO (1) epea zehaztu da.

6- AURREKONTUA

Proiektuaren aurrekontua 4. Dokumentua zehaztuta jaso da eta honako hau da: lanen burutze materialaren aurrekontua berrogeita HIRUREHUN ETA HEMERETZI MILA, HIRUREHUN BERROGEITA HAMALAU EUROS ETA LAUROGEITA HAMAR **(319.354,90 €)** zentimo eta lan horien kontrata bidezko exekuzioaren aurrekontua LAUREHUN ETA BERROGEITA HEMERETZI MILA ZORTZIREHUN ETA HOGEITA HEMERETZI EURO ETA HAMABI **(459.839,12 €)** zentimokoa da

7.- KONTRATISTAREN SAILKAPENA

2001eko urriaren 12ko 1098/2001 Errege Legegintza Dekretuak onartutako Administrazio Publikoko Kontratuen Legediak bateratutako testuaren arabera, eta 2007eko urriaren 30eko 30/2007 Errege Dekretuak onartutako Administrazio Publikoko Kontratuen Legediko Arautegi Orokorrean bildutakoaren arabera, honako sailkapen hau proposatzen dugu:

TALDEA: A Lurren mugimendua eta hondeaketak

AZPITALDEA: 2 Lur-berdinketak

KATEGORIA: c (urte osoko batez bestekoa 120.000 eta 360.000 euro bitartekoa)

8.- IDAZLARI TALDEA

Ondoren proiektu honetan parte hartu dutenen zerrenda bildu da:

- Miguel Ángel Otero Barreiro: Bide, ubide eta portuetako ingeniaria
- Elena Puldain Huarte: Bide, ubide eta portuetako ingeniaria
- Estrella Redondo Zaballos: Goi-mailako arkitektoa
- Julen Berbois Laspiur: ITOP (Obra publikoetako ingeniari teknikoa)
- Asier Aramburu Gonzalez: Topografian ingeniari teknikoa
- Ander Pérez de Lastra: ITOP (Obra publikoetako ingeniari teknikoa)
- Iñaki Etxagibel Martínez de Marigorta: Bide, ubide eta portuetako ingeniaria
- Marta Gonzalez: Administraria

9.- PROIEKTU HAU OSATZEN DUTEN AGIRIAK

1. DOKUMENTUA- MEMORIA

1. MEMORIA

MEMORIARI ERANSKINAK:

- 1. ERANSKINA: Proiektuaren ezaugarri nagusiak
- 2. ERANSKINA: Topografia
- 3. ERANSKINA: Kalitate kontrola
- 4. ERANSKINA: Azpiegiturak
- 5. ERANSKINA: Obra plana
- 6. ERANSKINA: Prezioen justifikazioa
- 7. ERANSKINA: Hondakinak kudeatzeko azterketa
- 8. ERANSKINA: Segurtasun eta Osasunaren azterketa

2. DOKUMENTUA- PLANOAK

3. DOKUMENTUA- BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA

4. DOKUMENTUA- AURREKONTUA

- 1. KAPITULUA- NEURKETAK
- 2. KAPITULUA – PREZIOEN KOADROA
- 3. KAPITULUA - AURREKONTUA
- 4. KAPITULUA – AURREKONTUAREN LABURPENA

Donostian, 2014ko uztailan

Proiektuaren egileak: girderingenieros s.l.p

Miguel Ángel Otero Barreiro

Elena Puldain Huarte